

«SAN VALENTINEKO BRUNCHA» LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak antolatzen du (IFK: H20818944; ondorio hauetarako helbidea: Arizmendi Almirantea kalea 9, 20302 Irun), eta parte hartzaileek arau hauek ulertu eta onartzen dituzte, eta, horrela, men egiten diete, baldintza orokor hauetan.

Sustapena Internet bidez egingo da, Mendibil Merkataritza Guneak Instagramen duen orrian, https://www.instagram.com/mendibil_cc helbidean.

Sustapen honetan parte hartzea doakoa da: ez da produkturik erosi behar, ez kuotarik edo inongo zenbatekorik ordaindu behar.

PARTE HARTZEKO DATAK:

2026ko otsailaren 5etik 13ra bitartean parte hartu ahal izango da, biak barne. Otsailaren 13an itxiko da parte hartzeko epea, 12:00etan.

1. PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

Espainian bizi diren 18 urtetik gorako pertsonak har dezakete parte.

Sustapenean parte hartzeak berak oinarriak osoki onartzen direla esan nahi du.

Parte-hartzaileak baztertzea: Edozein parte-hartzaile lehiaketatik kanpo geratuko da, baldin eta Mendibil Merkataritza Guneko jabe-erkidegoak uste badu modu irregularrean edo fede txarrez ari dela edo lehiaketaren funtzionamendu egokia eragozten duela. Ez da onartuko profil faltsuen erabilera, ez profilen iruzurrezko erabilera.

2. PARTE HARTZEKO DINAMIKA

Lehiaketa honetan parte hartzeko, pauso hauek eman behar dira:

- Mendibil Merkataritza Gunearen kontua jarraitu: @mendibil_cc
- Lehiaketaren dinamika azaltzen duen argitalpenari «atsegin dut» eman, (argitaratze-data: 2026ko otsailaren 5a).
- Argitalpenean pertsona bat aipatu. Zenbat eta gehiago, orduan eta aukera gehiago irabazteko.

3. SARIA:

- Bi pertsonarentzako brunch bat Mendibil Merkataritza Guneko THE GOODS BAKERYn, ostiral edo larunbat batean hartzeko, 10:00etatik 13:00etara, otsailaren 20tik aurrera.

- Brunchak 30 €-ko balioa du guztira, bi pertsonentzat. Irabazleek bruncheko menutik nahi dutena eskatuko dute, guztizko zenbateko horretara iritsi arte. Aukeratutako produktuek zenbateko hori gainditzen badute, aldea ordaindu beharko dute. Aldiz, zenbatekora iristen ez badira, ez zaie aldea itzuliko.
- Saria ezin da inola ere eskudiruagatik trukatu.
- Irabazleak NANA eskuan duela joan beharko du kafetegira.

4. SARIAK BANATZEKO MEKANIKA

Zozketa egingo da parte hartzaile guztien artean, AppSorteos aplikazioa erabilita.

Antolatzaileak otsailaren 16an jarriko dira harremanetan irabazlearekin, Instagrameko (DM) mezu baten bidez, parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eta saria onartzen duela adieraz dezan.

Datuak egiaztatu eta gero, irabazleak egun jakin bat adostu beharko du establezimenduarekin, sariaz gozatzeko (bruncha ostiral edo larunbat batean hartu beharko da, 10:00etatik 13:00etara, otsailaren 20tik aurrera). Saria ematean, argazkiak edo bideoak egin ahalko dira, Mendibil Merkataritza Gunearen sare sozialetara igotzeko.

Lehiaketaren oinarrien klausulak:

Zozketan parte hartzeak sustapenaren oinarriak osoki onartzea dakar, baita Mendibil Merkataritza Guneari baimena ematea ere parte-hartzaile guztien izena eta irudia erabiltzeko, Mendibilek publizitateko komunikazioetarako eskatuko balitu. Gainera, irabazleek baimena ematen diote Mendibil Merkataritza Guneari beren izenak eta/edo irudiak argitaratzeko publizitateko edozein euskarritan.

Eman dizkiguzun datu pertsonalei dagokienez, zera jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren arduraduna: Zure datuak Mendibil Merkataritza Guneako jabe-erkidegoak tratatuko ditu (IFK: H-20818944).

Helburuak eta legitimazioa: Datuak tratatzearen xedea «San Valentineko bruncha» lehiaketan parte hartzea da.

Epea: Zure datuak behar beste denboraz tratatuko dira, datuak biltzeko arrazoi izan ziren helburu zehatzak betetzeko, haien erabileraren garrantzia galdu arte edo, nolnahi ere, ezereztu arte, titularrak dagozkion eskubideak egikaritu baititzake.

Hartzaileak: Zure datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharririk ez bada.

Eskubideak. Baldin eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta/edo eramangarritasunerako eskubideak erabili nahi badituzu edo

zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, zure nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat erantsi eta idatzi Arizmendi almirantea kalea 9, 20302 Irun (Gipuzkoa) helbidera edo posta elektronikoko honetara: mendibil@centrocomercialmendibil.com